

# EUSKAL HERRIKO KIROL MARKAK ETA ERREKORRAK

<https://kirolerrekorrak.eus/>



**2022ko kirol errekorrak**

**2022ko marka berriak**

.....

## ATLETISMOA

Emakumeak

(Estalian)

.....

Donostia, 2022ko abenduaren 21a

## ABSOLUTOAK / EMAKUMEAK / Estalian

PROBA	ATLETA	URTEA	KLUBA	MARKA	DATA	LEKUA
60	Blanca Lacambra	1965	MiC.V	7.30	86.02.12	Madril
200	Blanca Lacambra	1965	MiC.V	23.19	87.02.22	Lievin
400	Blanca Lacambra	1965	MiC.V	54.00	86.02.09	Madril
800	Maitte Zuñiga	1964	H.H	2.01.83	89.02.28	Sevilla
1.500	Maitte Zuñiga	1964	G.U	4.10.99	94.03.13	Paris
3.000	Kristina Petite	1972	Bid.	8.52.85	99.93.07	Maebashi
60 hesi	Teresa Errandonea	1994	PAT	8.00	20.02.21	Madril
Altuera	Marta Mendia Valencia	1975	PAT	1.96	04.03.06	Budapest
Pertika	Naroa Agirre	1979	ASS	4.56	07.02.17	Sevilla
Luzera	Arantza Loueiro	1981	VCF	6.53	09.02.22	Sevilla
Hirukoitza	Maitane Azpeitia	1989	ASS	13.55	10.02.27	Valentzia
Pisua	Rita Lora Ribas	1973	PAT	15.05	92.02.08	Zaragoza
Euskal barra	-	-	-	-	-	-
Pentatloia	Ruth Unzu Ripol	1980	PAT	4031 puntu	06.02.25	Donostia



→ <https://kirolerrekorrak.eus/carmen-rianok-5-000-metroko-23-urtez-azpiko-errekorra-ezarri-du-pista-estalian/>

## **Carmen Riañok 5.000 metroko 23 urtez azpiko errekorra ezarri du pista estalian**

2022.12.7 | [ATLETISMOA](#), [EHKM](#), [EMAKUMEAK](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#)

**Pista estaliaz aparte, librean ere pasa den martxoaren 19an Oxford-en (AEB) burututako 5000 metroko proban hautsi zuen kategoria bereko Euskal Herriko errekorra, 16.18.39 markarekin**

Carmen Riaño Aransay fondistak (Azkoien, 2001/11/08) denboraldi miresgarria burutzen ari da aurten eta hala erakutsi zuen beste behin ere, asteburuan Bostonen (AEB) lehiaturiko txapelketan, 5.000 metroko 23 urtez azpiko Euskal Herriko errekorra ezarri zuelarik pista estalian.

21 urteko peraltarrak bigarren postua lortu zuen 5.000 metroko proban 15:50.83ko markarekin, hori bai, irabazlearengandik urruti, zortzi segundora, hain zuzen ere.

### **LASTERKETAREN SAILKAPENA**

1 Amanda Vestri Syracuse 15:42.48

2 Carmen Riaño Miami (Ohio) 15:50.83

3 Halle Hamilton Air Force 15:51.39

4 Billie Hatch Weber State 15:53.37

Pista estaliaz aparte, librean ere pasa den martxoaren 19an Oxford-en (AEB) burututako 5000 metroko proba irabazi zuen 16.18.39 markarekin, honakoan ere Euskal Herriko errekorra ezarriz. Aurretik errekor hau Estitxu Urrutia Gonzalezek (Bilbo, 1970) zuen, 1992tik, 16.18.55 denborarekin.

Halaber, 3000 metro oztopoetako proban erdietsi zuen errekorra, maiatzaren 29an Bloomingtonen (AEB) lehiatu zen NCAA East Preliminary proban, 9.46.91ko marka bikaina erdietsita. Aurretik, apirilaren 1ean, Palo Alto (AEB) hiriko Stanford Invitational jardunaldietan, 9.57.42 denborarekin iritsi zen helmugara, eta orduko hartan 23 urte arteko kategorian Euskal Herriko errekorra ezarri zuen ere. Ordurarte errekor hori June Arbeo Sarriugartek (Durango, 1999) zuen, 2021eko ekainean egindako 10.02.36 denborarekin.

Gauzak horrela, Miamiko Unibertsitatean ikasten eta bertan lehiatzen den atleta nafarrak fondistarik onenetakoa dela erakusten jarraitzen du, eta hurrengo erronka abenduaren 12an Italiako Turin hirian jokatu den Eurokrosean izango du.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/itsaso-madariagak-berriro-ondu-du-300-metro-hesidunak-probako-errekorra-16-urtez-azpikoen-mailan/>

## **Itsaso Madariagak berriro ondu du 300 metro hesidunak probako errekorra, 16 urtez azpikoen mailan**

2022.05.29 | [ATLETISMOA](#), [EHKM](#), [EMAKUMEAK](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#)

## **Igande honetan, maiatzak 29, 42.90ko denbora eginda errekor berria ezarri zuen, aurretik berea zen marka 27 ehunenekotan onduz**

Egun gutxiren buruan birritan hautsi du 300 metro hesidunak probako Euskal Herriko errekorra Itsaso Madariaga Huegunek, 16 urtez azpikoen mailan. Pasa den maiatzaren 7an, Anoetako Miniestadioan, arratsaldeko 15:45etan emakumezkoen 300 metro hesidunak proba hasi zen, eta bertan Madariagak 43.17ko denbora egin zuen, berea zen marka 69 ehunenekotan hobetuz. Izan ere, iazko maiatzaren 23an 43.86ko marka ezarria zuen Donostian bertan, Real Sociedad Atletismo taldeko kirolariak.

Horrekin konformatu ez, eta handik gutxira, igande honetan (maiatzak 29) hain zuzen ere, berriro hobetu zuen bere denbora eta errekor berria ezarri zuen: 42.90. 2007. urteko urtarrilaren 24an jaiotako atletak 100 metroko errekorra ere berea du, 16 urtez azpiko kategorian, 2021eko ekainean 12.02ko marka egin baitzuen Donostian.

Hortaz aparte, pentatloian zein hexatloian Euskal Herriko errekorrena da Madariaga. Pentatloian, 3.693 puntu batuta eskuratu zuen errekorra, aurtengo martxoaren 27an Sabadellen. Hexatloian berriz, 3.960 puntuko errekorra ezarri zuen aste gutxira, apirilaren 10ean Durangon.

→ <https://kirolerrekorak.eus/35-urtean-gainditu-gabeko-euskal-herriko-errekorak-ditu-blanca-lacambak/>

## **35 urtean gainditu gabeko Euskal Herriko errekorrak ditu Blanca Lacambak**

2022.03.25 | ATLETISMOA, EMAKUMEAK, ERREKORRAK

### **1986an egindako 200 metro zein 400 metroko markak ez ditu inork gainditu.**

**Blanca Lacambra** (Donostia, 1965), 35 urtetan gainditu ez diren Euskal herriko errekorrak ditu, atletismoko 200 metro zein 400 metro aire librean, hain zuzen ere. Lehena Bartzelonan lortu zuen 1986ko uztailaren 16an, 23,58 denborarekin. Bigarrena Madrilen hilabete lehenago, 1986ko ekainaren 20an, 51,53 denbora eginda.

Harrezkero Euskal Herriko inork ez ditu marka hauek gainditu. Eta erregistroak daudenetik, emakumezkoetan gainditu ez diren errekor zaharrenak dira, Maite Zuñigak 800 metrotakoan 1988an eta 1.500 metrotakoan 1992an lortutakoak hurbiltzen bazaizkio ere.

Egun, Gasteizen bizi den atleta ohi honek oroimen on asko eta bi belaunetan endekapenezko artrosia ditu garaiko kirol jardunaren ondorioz. Atletismotik urrunduta badago ere, ez du kirola baztertuta. Gasteizko Body Chronos-en aritzen da lanean eta Yogaz aparte, era ezberdinetako ikastaroak eman izan ditu. Atleten entrenatzaile personal gisa ere aritzen da. Ez da elkarrizketa emate zalea, eta eskertzen diogu guri eman izana.

**Egun on, 35 urte igaro dira atletismoko Euskal Herriko errekorra lortu zenuela 200 eta 400 metrotan. Errekorra hautsi gabe denbora gehien pasatu den marka da zurea. Nola gogoratzen duzu?**

Aspaldiko kontua da, baina nire lehen oroitzapenak lorpen horien atzean dagoen lana eta esfortzura eramaten nau. Harrotasun pixkat ematen dit errekorra neurea izatea oraindik, baina egia esan, beti esaten dugu tituluak gordetzeko direla, baina errekorrak hausteko. Eta benetan izugarrizko poza emango lidake norbaitek nire errekorra hautsiko balu.

### **Zer balorazio egiten duzu?**

Ez dakit, alde batetik marka ona egin nuenaren seinalea da, baina bestetik, uste dut atletismoak pairatzen duen laguntza eta babes eskasiaren islada ere badela. Urte hauetan futbola nagusitzen joan da, eta atletismorako infraestruturak, bekak, laguntzak eta abar ez dira bideratu. Nolabait esateko “ahatetxo itsusia” da atletismoa eta horrek gero ondorioak ditu. Izan ere, Euskal Herrian oso atleta onak atera dira, batzuk olinpikoak ere, baina ez dirudi behar adina laguntza eta infraestruturak dagoenik. Eta orain 35 urte lortutako errekorrak hautsi gabe daude. Benetan ilusio egingo didala hausten dituztenean.

### **Zu atleta profesionala zinen?**

Kasualitatez hasi nintzen kirol honetan Reyes Catolicos ikastetxean, Gasteizen, eta egia esan profesional izatera iritsi nintzen. Beka batzuk lortu eta Madrilera joateko aukera izan nuen. Ogibide izan nuen baina bere neurrian, egunean bizitzeko aukera izan nuen, besterik gabe.

Oro har laguntza gutxi daude. Euskal Autonomia Erkidegoan beste lekutan baina gehitxoago agian, baina hala ere oso gutxi. Bartzelonako Joku Olinpikoen garaiaz aparte (orduan bai egon ziren laguntzak), orohar ez da babes handirik izan.

### **Ez zara elkarrizketa emate zalea, publikoan ateratze zalea, baina emakumeen kirola sustatzeko kanpainetan ikusi zaitugu.**

Bai egia esan, horretarako beti prestatzen naiz. Nire aletxoa jarriko dut zalantzarik gabe plaza horretan.